

ETAren su-etena

Erreakzioak ♦ Eusko Jaurlaritzaz

MADRILGO GOBERNUAK PRESOK GERTURATU BEHARKO LITUZKEELA ADIERAZI DU EAEKO LEHENDAKARIAK BRUSELAN

ETAr distentsio keinuren bat egitea komenigarritzat jo du Ardanzak

Su-etena sendotzeko ETAre inguruan «lasaitasuna» sortzea garrantzitsua dela adierazi du Jose Antonio Ardanzak, Bruselan egindako agerraldian. Europako eta Espainiako hauteskundeak egin ondoren, 2000. urtean alegia, Euskal Herriko arazo politikoa konponbidean jartzeko ordua izango dela uste du.

Agentziak / Brusela

MADRILGO Gobernuak uste du urriko hauteskundeak egin arte ez dela inolako mugimendurik egin behar, ezta presoak gerturatu ere. Hala adierazi dute Gobernuko bozeramaileek, baina Jose Antonio Ardanza lehendakariak bestelako ikuspuntu bat du. Uste du «komenigarria» litzatekeela «distentsio keinuak» egitea ETAr, horrek su-etena sendotuko luke-elakoan.

Jose Maria Aznarri eskatutako keinua presoekin lotuta dago. Ardanzak uste du presoak gerturatuko balitu, ETAre inguruarri «lasaitasuna» emango liokeela. Adierazpen hori atzo egin zuen, Bruselan. Lehendakaria, izan ere, han izan da NATOko idazkari nagusi Javier Solanarekin elkarrizketatzeko.

Ardanzak bereizi egin zituen ETAr eman beharreko erantzuna eta Euskal Herriko gatazka politikoa konpontzea. ETAr erantzuteko hauteskundeak egin arte ez itxoiteko eskatu bazuen ere, gatazka politikoa behin betiko konponbidea 2000 urte ondora atzeratu zuen.

ETAr «lasaitasun mezu bat» helaraztea komenigarritzat jo zuen Ardanzak: «Biolentzian izan den mundu horretara lasaitasuna helaraztea komenigarria da, eta horretarako keinuak egin beharko lirateke, testuinguru lasaia sortzeko». Adibide gisa, presoek gerturatzea aipatu zuen. Halaber, preso gaixoak askatzaren eta zigorraren hiru laurdenak bete dituzten baldintzapeko askatasunaren alde agertu zen.

Keinu hauek egitea hauteskunde prozesuarekin ez nahasteko eskatu zuen lehendakariak. «Garrantzitsua da keinu hauek egitea hauteskunde prozesua dagoela aintzat hartu gabe. Horrek bermatuko luke armei agur esatea eskuzabalak izaniko, arrazoitu zuen.

HBk parte hartu beharko luke

ETAr politikari bide eman dala esan zuen Ardanzak, eta burujabetasuna lortzeko alderdi abertzaleei dei egin diela ondorioztatu du. Honela interpretatzen du Ardanzak ETAre agiria: «ETAr armak uzteko erabakia hartu du eta esan die alderdi abertzaleei apustu politikoa egiteko. Izan ere, alderdi abertzale demokratikook beti esan diogu ETAr bio-



Javier Solana NATOko idazkaria eta Jose Antonio Ardanza lehendakaria, Bruselan.

JON BERNARDEZ / EFE

lentziarekin abertzaleen teitlatura harrika ari zela, helburu politikoa deslegitimitatzen zutelako».

Gatazka politikoa buruz, Ardanzak uste du ez dela konponduko Europako eta Espainiako hauteskundeak pasatu arte. Uste du arazo politikoa «sakontzea» ia ezinezkoa izango dela hainbeste hauteskunde izanda; baina ohartarazi du horrek ez duela esan nahi «geldirik» egon behar dela denbora horretan.

Egin beharrekoa, Ardanzaren

aburuz, alderdien arteko elkarrizketa prozesuari ekitea litzateke; «guztioak guztioan», esan zuenez. Prozesu horretan HB sartuko luke, nahiz eta oraindik «zail samarra» litzatekeela onartu zuen. Dena dela, dei egin zien alderdiei HB «beste alderdi bat gehiago bezala» onar dezaten.

«PPri eta PSOeri asko kostako zaie aurrez aurre HBrekin hitz egitea. Hala ere, zenbat eta lehengo hasi elkarrizketa prozesua, zubiak eraikitzen eta hitz egiten, hainbat eta hobe», adierazi zuen.

Ardanzak, halaber, gogora ekarri zuen dagoen arazoa «politikoa» dela, eta horrek erantzun bereziak eskatzen dituela.

«Hauteskunde guztiak egin ostean burua altxatu eta hausnarketarako garaia izango da. Orduan erabaki beharko dugu nora joan nahi dugun eta nola eratu nahi dugun Euskadi-Espainia harremana. Nahi dugu gure etorkizuna erabakitzeak izatea, guk geuk erabakitzea zer izan nahi dugun», adierazi zuen Ardanzak. X

Jose Mari Muñoa ♦ Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako ordezkaria

«Ez dugu ulertzen Frantziaren isiltasuna»

Jose Mari Muñoak, *Sud-Ouest* egunkariari eskaini elkarrizketan, harridura azaldu du Frantziak ETAre su-etenen aurrean duen jarreragatik. «Estatu Batuetako Etxe Zuriak ere aldeko agiria kaleratu duenean, ez dugu ulertzen gure hurbileneko auzokideen isiltasuna». Hala ere, hau gaineratu zuen ondoren: «Badakigu hurbiltasunak gauzak zaildu egin ditzakeela». X

Juan Maria Atutxa ♦ Eusko Jaurlaritzako Barne sailburua

«Su-etena serioa bada, kale istiluek desagertu egin behar dute»

ETAr iragarritako su-etena eta erreakzioak aipatu zituen Atutxak, eta hala, Jarrai gazte erakundeak astelehenean egin adierazpenez mintzatu zen. Atutxaren ustez, «su-etena serioa bada, kale istiluek desagertu egin behar dute». Gainera, Atutxaren ustez, hemen Irlandan bezala gertatuko da, alegia, «euren kideek dei egin-gotz diete eta ordena ezarriko». X

Eusko Jaurlaritzaren adierazpena

Atzo, Eusko Jaurlaritzak agiri bat kaleratu zuen ETAre su-etena dela medio. Hona hemen, hitzez hitz, adierazpenak dioena.

1- Jaurlaritzaren iritziz, ETAr aldarrikatu duen erabateko eta mugagabe su-etena, organizazioaren historian lehena izateaz gain, oso garrantzi handiko gertakizuna da. Indarkeria behin betiko baztertzeko benetako borondatearen seinale bada —eta Jaurlaritzak halaxe uste du—, Ajuria Eneko Hitzarmenaren 10. Atalak Euskadira normalizazioa eta bakea ekartzeko ezarritako baldintzak beteko litzuke aldarrikapen horrek.

2- Jaurlaritzak bere egiten ditu su-etenen herritarren artean zabalduko poztasun eta esperantza, eta, era berezian, ETAre mehatxupean bizi izan direnek hartu duten lasaitasuna.

Pozet eta esperantzaz beteriko une honetan gogoan ditu baita alperriko indarkeri hori jasan duten guztiak ere, eta hemendik aurrera gehiagorik egongo ez den esperantza dauka gainera.

3- Hori horrela izan dadin eta esperantza berriro zapuztu ez dezagun, Jaurlaritzaren ustez arduradun politikoa guztiak, ETAre indarkeriaren alde egon diren haiek lehenik, egoera berriaz jabetu behar gara, elkarrizketa ireki eta malguen bideari eutsi behar diogu, eta indartu ere, beharrezkoa den elkarrenganako konfidantza sortu ondoren, zentzunez, ikuspegi zabalaz eta erantzunkizun handiz

joka dezagun azkenez. Patxadaz hartu eta demokraziaren joku-arauen bidetik konpon ditzagun Euskal gizarte honek aspalditik bizi izan dituen eta zatituta utzi duten gatazkak, gizarte honek bere baitan zein ingurukoekin dituen harreman politikoak erabat normalitzea eragotzi dutenak alegia.

4- Jaurlaritzaren ustetan, orain datorren prozesu honen aurrean euskal herritarrek ezin dira eta ez dira begira eta geldirik egon behar. Giza-eskubideen alde eta gizabidezkoak eta demokratikoak diren balioen alde agertu duten konpromisoa su-etena lortzeko erabakiorra izan denez, hemendik aurrera zuhur eta zorrotz jokatzeko ere erabakiorra izango da su-etena horrek atzerantzako biderik har ez dezan eta Herri honetan pluraltasuna zainduta adiskidetasuna lor dezagun eta bakea, azken batean. X